

# EUSKAMPUS MISIOAK 1.0

## 2021eko programa

## Euskampus, erronka handiei erantzun bateratua emateko aukera

**COVID-19 pandemiaren osteko aldiak ahaleginak batzea eskatzen du, gizarteak erresilienteagoak, jasangarriagoak eta ekitatiboagoak izatea bultzatzeko. Desafio global hori gainditzeko, erantzun kooperatibo konplexuak eskatzen dituzten hainbat erronka zientifiko, teknologiko, ekonomiko, sozial eta politikori batera aurre egin behar zaie.**

2020. urtean, 2030erako Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko asmo handiko hamarkada bat hasi zen. GJHak, Nazio Batuetako estatu kideek Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren barruan onartuak, planeta babestu, pobrezia desagerrarazi, bizitza osasuntsua bermatu eta ongizatea sustatzeko neurriak hartzeko dei unibertsal bat dira.

COVID-19aren ondorengo Europa ekologikoagoa, digitalagoa, erresilienteagoa eta egungo eta etorkizuneko erronketara hobeto egokitua izango da, norabide horretan ekarpen bat egiteko asmoa geure egiten dugun neurrian. Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidentea 2019tik aurrera proposatutako lehentasunak bultzada erreal eta konprometitu bat izan dira Europa lehen kontinente klimatikoki neutroa bihurtzeko, pertsonak gure eredu ekonomikoaren erdigunean kokatzeko, gure gizartea aro digitalera hobeto egokitzeko eta Europako demokrazia indartzeko, Europako bizi estiloa defendatuz mundu mailan indartsuagoak izateari begira.

Euskadin, Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plan berriaren bidez, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzari bultzada bat emateko asmoa dago, Euskadi digital, berde eta inklusibo baterako trantsizioa bizkortzeko. ZTBP Euskadi 2030 planak, espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi estrategian, lehentasuneko hiru espezializazio arlo (osasun pertsonalizatua, energia garbiagoak eta industria adimenduna) eta lau abagune esparru (elikadura osasungarria, ekoberrikuntza, hiri jasangarriak, Euskadi sortzailea) ditu ardatz. Espezializazio arloekin batera, ZTBP 2030ek Zeharkako Ekimen Traktoreen kontzeptua sartu du zahartze osasungarriaren, mugikortasun elektrikoaren eta ekonomia zirkularraren esparruetan.

Euskampus 2021ean aurkeztu duen Plan Estrategiko berriaren helburuetako bat GJHei eta lurraldeko eta Europako berrikuntza estrategiei batera erantzutea da. Horretarako, Euskampus Fundazioak diziplinarteko eta diziplinaz gaindiko hainbat lankidetzak formula bultzatu, diseinatu eta hedatuko ditu. Formula horiek askotariko eragileek parte hartzeko aukera emango dute.

Egungo egoeran, testuinguru programatiko global, europar eta lokal berri honetan ekarpen bat egiteko, eta bere ikuspegi eta misioarekin bat etorriz, Euskampus 2.2- *Euskampus Misioak bultzatzea* jarduketara ildo planteatu du. Horiek aktibatzeke tresna gisa, **“Euskampus Misioak 1.0”** 2021eko Programa hau abiarazi da, bere **patronatuko kide diren erakundearen artean** eta gaitasun osagarriak dituzten bestelako erakundeekin batera **lankidetzak proiektuak** egitea babesteko eta katalizatzeke; zehazki, **gizarte erresilienteagoak, ekitatiboagoak eta jasangarriagoak lortzeko erronka**

**espezifikotara bideratutako** proiektuak, **bereziki ozeanoen jasagarritasunean eta balorizazioan arreta jartzen dutenak**, eta, aldi berean, **eragin zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta sozial handia** izan dezaketenak.

Euskampus Misioak **UPV/EHUK, Bordeleko Unibertsitateak, Tecnaliak eta DIPCk, bakoitzak bere aldetik, dituzten gaitasun talentu eta esperientzien aniztasun aberatsa antolatzeko** modu bat dira. **Horrela, lankidetzari norabide zehatz bat emango zaio eta, horri jarraituz, hainbat kolektiboren ekintzak gidatuko dira:** ikasle, irakasle, ikertzaile, kudeatzaile, profesional eta enpresa eta gizarte eragileenak, baita herritarrenak ere.

Zer da Euskampus misio bat?

...Erantzun kolektibo bat da,

...Euskampuseko patronatuko kide diren erakundeek zuzendua

...eta beste erakunde eta eragile batzuekin hitzartua,

...erronka zientifiko, teknologiko, ingurumeneko, kultural, ekonomiko edo sozial handi bat edo horien nahasketa bat jorratzen duten helburu aurredefinitu batzuk lortzeko,

...hezkuntzaren, ikerketaren eta jakintzaren transferentzia eta hedapenaren arloko ekintzen agenda koordinatu baten bidez.

2020an, osasun krisiari eta euste neurrien ondoriozko desfioei erantzuteko zeuden gaitasunak antolatze aldera, Euskampus Covid-19aren aurreko Euskampus Erresilientzia Programa abiarazi zuen, lau motatako erronketan oinarrituta ("Birus bat, milioika datu", "Small is powerful", "Industria erreskatera" eta "Gizarte erresiliente bat"). Euskampus erakundeek 13 proiektu prestatu eta aurkeztu zituzten oso denbora laburrean eta horietatik 9 aukeratu ziren. Aipatutako proiektuek 100 ikertzaile inguru mugiarazten dituzte eta guztira 220.000 €-ko finantzaketa jaso dute 2020an eta 2021ean garatzeko.

## Euskampus Misioak 1.0 Programa

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorengo testuinguruan ikusten denez, fenomeno hori ez da iragankorra; aitzitik, bizitzak mundu ordenari maila guztietan eragiten dion dimentsio berri honekin egin du aurrera. Horregatik, erresilientzia balio eta gaitasun oso preziatua bihurtu da. Zailtasun gogorak gainditzeko, egokitze eta indarberrituta ateratzeko gai denak bakarrik jarraitu ahal izango du bizimodu hobea lortzen.

Era berean, klima aldaketaren ondorioek beste protagonismo bat hartu dutela dirudi. Askok ziurtatzen dute gizakiak biodibertsitateari eta ingurumen orekari egindako kaltea dagoela, neurri batean, birusaren hedapenaren eta aldaera berriak sortzearen atzean<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Rodó, X., San-José, A., Kirchgatter, K. *et al.* Changing climate and the COVID-19 pandemic: more than just heads or tails. *Nat Med* 27, 576–579 (2021). <https://doi.org/10.1038/s41591-021-01303-y>

Nazioarteko bi programak ozeanoen jasangarritasunera eta balorizaziora bideratutako misio bat planteatzearen garrantzia eta aukera azpimarratzen dute: Europar Batasunaren Itsas Estrategia Integratuak<sup>2</sup> eta Nazio Batuen garapen jasangarriaren aldeko 2021-2030erako Ozeano Zientzien Hamarkadak<sup>3</sup>.

Biek nabarmentzen dute elkarlanean aritu eta bai ahaleginak bai gaitasunak koordinatu behar direla eta horiek dira misioen eta erronken araberrako jarduketara ikuspegiak proposatzen dituzten gakoak. Zehazki, Estrategiak 2020ko uztailan onartutako 2.0 Ekintza Plan Atlantikoak kostaldeko eskualdeen politikak ikuspegi integratzailea izatea proposatzen du, ekonomia urdin iraunkor, erresiliente eta lehiakor baten potentziala sustatzeko helburu orokorrarekin.

Bestalde, NBERen Hamarkada lankidetzan aritzeko eta elkarrekin ikasteko esparru gisa proposatzen da, partaidetzazko prozesu eraldatzaile batean oinarritua, zientzialariek, arduradun politikoek, kudeatzaileek eta herritarrek elkarrekin lan egin dezaten, ozeanoetako zientziak bai ozeanoetako ekosistemari bai gizarteari onura handiagoak ekartzea bermatzeko.

Era berean, Euskampus Fundazioak ekonomia urdineko erakunde elkartuekin eta eragile publiko eta pribatuekin egiten duen jardueraren ondorioz, ikerkuntza, prestakuntza eta esku hartzearen arloetan masa kritikoa dago eta masa hori aktibatu daiteke Euskampusen “Ozeanoak eta urak” Misio planteamendu batean antolatzeko.

Erronka horiek korapilatsuak direnez, baterako ekintzak sustatu behar dira, diziplina dinamikak gaindituko dituzten ikuspegi berritzaileetan oinarrituz, arazo zehatzei irtenbide espezifikoak eskaintzeko eta, era berean, mundu hobea egiteko aukera berriak sortzeko.

2020an abian jarri zen Covid-19aren aurreko Euskampus Erresilientzia Programarekin izandako lehen esperientziaren ondoren, **Euskampus Misioak 1.0** 2021eko programak honako helburu hau du: ikerketa, berrikuntza eta prestakuntza arloetako gaitasunak tokiko, Europako eta munduko lehentasun sozial eta politikoekin bateratzea (RIS3, Itun Berdea, Aro Digitala, GJHak), **gizarte erresilienteagoak eta ozeanoen jasangarritasuna eta balorizazioa sustatzeko**. Zehazki, gai horiek aukeratuta, ikertalde eta talde pedagogiko guztien parte hartzea bultzatzeko asmoa dago –gizarte eta giza zientzien arlokoak barne–, beste diziplina batzuetako taldeekin lankidetzan proiektu berritzaileak planteatu ditzaten, bai ikerketa helburuaren ikuspegitik, bai metodologiaren eta lanketa diziplinarteko eta sistemikoaren ikuspegitik.

Robert M. Beyer, Andrea Manica, Camilo Mora, Shifts in global bat diversity suggest a possible role of climate change in the emergence of SARS-CoV-1 and SARS-CoV-2, Science of The Total Environment, Volume 767, 2021, 145413, ISSN 0048-9697, <https://doi.org/10.1016/j.scitotenv.2021.145413>.

The Lancet, 2021. Climate and COVID-19: converging crises. The Lancet, 397(10269), p.71. [https://www.thelancet.com/journals/lancet/article/PIIS0140-6736\(20\)32579-4/fulltext](https://www.thelancet.com/journals/lancet/article/PIIS0140-6736(20)32579-4/fulltext)

<sup>2</sup> Iturria: <http://www.atlanticstrategy.eu/es/la-estrategia-atl%C3%A1ntica/la-estrategia-atl%C3%A1ntica>

<sup>3</sup> Iturria: <https://www.oceandecade.org/about?tab=our-vision>

Horrela, bi proiektu-kategoria proposatzen dira:

### 1. Ikerketa kooperatiboa

Diziplina arteko eta eragile anitzeko ikerketa kooperatiboko proiektuak, proiektu horien proposamenek baterako lan-plan bat izan beharko dute, eragileak, interes-taldeak eta sortutako inpaktua areagotzea eta zabaltzea ahalbidetzen duten gainerako erakundeak tartean direla. Horretarako, proposamenek ekintza osagarriak barne hartuko dituzte, ikerketen emaitzak publiko espezializatuaz haraindi zabaltzera bideratuak, eta ikasle-komunitateari eta beste gizarte-kolektibo batzuei zuzendutako prestakuntza-hezkuntza-berrikuntza- eta dibulgazio-jarduerak ere planteatu ahal izango dituzte.

### 2. Hezkuntza-berrikuntza

Hezkuntza berriztatzeko proiektuak ikerketa-proiektuei modu osagarrian lotutako ekimenak edo ekintzak izan daitezke, edo modu independentean proposa daitezke. Ikerketan oinarritutako ikaskuntza sustatu beharko dute (RBL ingelesez) eta arazoetara edo erronketara bideratua, ikaskuntza-espazioak bultzatuz, lankidetzakoak eta zeharkakoak (diziplinartekoak eta stakeholder-en inplikazioa dutenak)<sup>4</sup>, eta iraunkortasun-hezkuntzarekin lerrokatuta egon beharko dute<sup>5</sup>.

Hori guztia kontuan hartuta, lehia prozesu bat ireki da proiektuak hautatzeko, dokumentu honetako Xedapenetan jasotako prozedura eta irizpideei jarraikiz.

---

<sup>4</sup> El modelo educativo IKD i3 de UPV/EHU es un marco de orientación a privilegiar. Referencias: EHUagenda2030 por el desarrollo sostenible: <https://www.ehu.es/es/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030>

Catálogo de competencias transversales de UPV/EHU: <https://www.ehu.es/es/web/enplegua/competencias-transversales>

<sup>5</sup> Orientaciones y herramientas practicas en: SDSN (2020): Accelerating Education for the SDGs in Universities: A guide for universities, colleges, and tertiary and higher education institutions. New York: Sustainable Development Solutions Network (SDSN): [https://irp-cdn.multiscreensite.com/be6d1d56/files/uploaded/accelerating-education-for-the-sdgs-in-unis-web\\_zZuYLaoZRHK1L77zAd4n.pdf](https://irp-cdn.multiscreensite.com/be6d1d56/files/uploaded/accelerating-education-for-the-sdgs-in-unis-web_zZuYLaoZRHK1L77zAd4n.pdf)

## XEDAPENAK

### 1. artikulua. - Parte har dezaketen erakundeak

1. Euskampus Erakundeei<sup>6</sup> eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistemaren (ZTBES) eta/edo Akitania Berrikoaren parte izanik beste horien kide diren erakundeei zuzenduta egongo da programa.
2. Proiektu bakoitzean, Euskampus Erakundeetako bi ikertalde parte hartu behar dute gutxienez, eta horietako bik lidergoa izan behar dute.
3. Erakunde bereko ikertalde baten baino gehiagoren lankidetzaren positiboki baloratuko da, betiere arlo edo diziplina ezagutza desberdinetako adituz osatuta badaude.
4. Euskampus Erakundeak bakarrik izango dira programaren onuradun zuzenak. Beste erakunde batzuek ere parte hartu ahal izango dute proiektuan, baina ezingo dituzte fundazioaren funtsak zuzenean jaso.


### 2. artikulua. - Ikerketako eta hezkuntza berrikuntzako proiektuen orientazioa.

1. Ikerketako eta/edo hezkuntza berrikuntzako proiektuak honako gai esparru<sup>7</sup> hauetakoren batekoak izango dira, eta argi eta garbi identifikatu behar dute zer erronka zehatzi erantzuten dioten eta gizartean zer eragin izan dezaketen:

---

<sup>6</sup> Euskampus Erakundeak ezagutza sortzaile diren haren Patronatuko kideak dira: UPV/EHU, Tecnalia, DIPC eta Bordeleko Unibertsitatea.

<sup>7</sup> Esparruak zabalak eta argigarriak dira; gainera, esparru bakoitzaren barruko ildoak orientagarriak dira eta ez dituzte baztertzen irudian aipatu gabeko beste ildo posible batzuk.



2. Proiektuak arazo zehatz batean oso fokalizatuta egon daitezke edo zabalagoak izan. Argi eta garbi diziplinartekoak/diziplinaz gaindikoak<sup>8</sup> diren proiektuei lehentasuna

<sup>8</sup> Diziplina lankidetzako lau maila bereizten ditugu

- Diziplina bakarrekoa: Diziplina baten barruko lankidetzak. Adibidez, partikula esperimentalak aztertzen dituzten fisikarien eta alor horretako teorialarien artean.
- Diziplina anitzekoa: diziplina bakoitzak bere ezagutza ekarriz balio kate lineal bat sortzen da. Adibidez, neurozientzialarien eta neurologo klinikoen artean, ikuspegi translazional batekin, laborategitik hasi eta pazienteraino.
- Diziplinartekoa: Lankidetzak ikuspegi, lengoia eta erronka komunak bateratzea eskatzen du, baina diziplina bakoitzak bere metodologiak mantentzen ditu. Adibidez, informatikari, ingeniari, fisikari eta matematikarien artean, partikula laborategi batean, CERN-en kasu.
- Diziplinaz gaindikoak: Lankidetzak jorratu beharreko erronka zehaztean hasten dira, diziplinen arteko eta akademiatik/ikerketatik kanpoko erakundeen arteko aberaste gurutzatua dago.

emango zaie; bereziki, jakintza arlo ugari biltzen dituztenei (natur zientziak, osasun zientziak, ingeniarietza eta arkitektura, arteak eta humanitateak, gizarte zientziak eta zientzia juridikoak).

3. Ikerketa proiektuen kasuan, oso modu positiboan baloratuko da proposamenek graduako edo graduondoko ikasleak edo graduatu berri diren ikasleak inplikatzen eta/edo proiektuaren transferentzia eta eragin soziala maximizatzen jardueraren osagarri batzuk barne hartzea.

### 3. artikulua. - Ikerketa proiektuen iraupena.

1. Proiektu guztiak 2021eko eta 2022ko ekitaldien barruan garatuko dira. Kasu guztietan, gehienez 2022/12/31ra arteko epea izango dute amaitzeko.

### 4. artikulua. - Hautatutako proiektuetarako onurak

Euskampusen laguntzak bi osagai izango ditu: **aurrekontu esleipen bat**, batetik; eta, bestetik, **neurritako gidaritza** eta proiektu taldea osatzen duten ikertaldeentzako laguntza eta babes ekintzak.

#### 4.1. artikulua - Euskampusen emango duen finantzaketa

1. Euskampusen emango dituen laguntzen gehieneko kopuruak hauek izango dira: proiektu bakoitzeko 30.000 euro, eta erakunde bakoitzeko 15.000 euro.

2. Parte hartzen duten taldeek dituzten beste laguntza edo funts batzuen baterako finantzaketaren izaera izango dute laguntzek:

- Lehenetsua emango zaie eskatutako edo abian jarritako proiektuen osagarriak direla frogatzen duten proiektuei, nola banakakoei hala kolektiboei, baldin eta identifikatutako erronkari erantzuten badiote.
- Tokiko, estatuko eta, batez ere, nazioarteko beste deialdi batzuetara proiektatzeko gaitasuna dutela frogatzen duten proiektuei lehenetsua emango zaie, eta Euskampusen laguntzaren bidez sartuko dira programa horietara.

3. Euskampusen emandako laguntzak erakunde onuradunei transferituko zaizkie, erakunde bakoitzaren barne prozeduren arabera kudea ditzaten. Proiektua gauzatzeko baino ez dira erabiliko, eta ezin izango dira zeharkako kostuak kargatu. Honako hauek ordaindu ahal izango dira:

- Langileen kostuak.
- Hainbat gauzatze kostu, suntsikorrak, materialak, argitalpenak, bidaiak, etab.

#### 4.2 artikulua – Gidaritza, laguntza eta babesa

Euskampusen eskutik egingo den gidaritza prozesuaren ardatza proiektu espezifikoaren gizarte inpaktua neurtzeko metodologia bat garatzea izango da. Inpaktua neurtzen

---

Horixe da erronka sozial eta global handiei aurre egiteko behar den lankidetzaren, hala nola klima aldaketari edo biztanleriaren zahartzeari, misioen esparruan.



espezializatuta dagoen Euskampus taldearen eskutik egingo den prestakuntza eta gaikuntza ekintzen multzo bat, ikertzaileek trebetasunen eta ezagutzen oinarri sendo bat garatu dezaten eta beren ikerketaren emaitzak gizartera transferitzea errazagoa izan dadin.

Laguntza prozesua metodologia batzuetan oinarrituz antolatuko da. Horien artean, honako hauek egon daitezke, besteak beste: neurrira egindako aldaketaren teoria bat garatzeko lan saioak edo tailerrak, eta abar.

## 5. artikulua.- Hautatutako proiektuetako taldeen betebeharrak

Euskampus Misiok 1.0 2021eko programara aurkeztutako proiektu bat onartzeak eta ondoren ikertaldeak laguntza onartzeak honako betebeharrak hauek ekarriko dizkie onuradunei:

- 4.2 artikuluan deskribatutako gidaritza, laguntza eta babes jardueretan parte hartzea.
- Euskampus Misiok 1.0 2021eko programaren deialdiaren esparruan onartutako beste proiektu batzuetako ikertaldeekin lankidetzan aritzeko bideak bilatzea.
- Aldian behin, Euskampuseko talde operatiboari proiektuaren aurrerapen mailari buruzko informazioa ematea, eta, babes pertsonalizatuagoa eskatzen duen edo aurkeztutako proiektu proposamenean hasieran planteatutako lan planetik desbideratzea eskatzen duen zailtasunen bat izanez gero, horren berri ematea.

## 6. Artikulua.- Proiektuak aurkezteko prozedura

1. Proposamenak erantsitako ereduaren arabera egingo dira – 2021eko Proiektu Programen Memoria – Euskampus Misiok 1.0\_Ikerketa eta Proiektu Programen Memoria 2021 – Euskampus Misiok 1.0\_Hezkuntza Berrikuntza –.Proiektu bakoitzeko ikertaldeko kideen curriculum vitae laburtuak (CVL) erantsiko dira, Estatuko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak (MINECO) ezarritako Zientzia eta Teknologiareneko Espainiako Fundazioaren (FECYT) formatuaren arabera. CVLa automatikoki sortzen da FECYT-en Curriculum vitae Normalizatua aplikaziotik.

Bordeleko Unibertsitateko edo haren kide diren Akitania Berriko erakundeetako ikertzaileek ANR-Agence Nationale de la Recherche erakundeak proposatutako formatuan aurkeztu ahal izango dute beren CVa.

2. Proposamenak posta elektronikoz bidaliko dira [misiones@euskampus.eu](mailto:misiones@euskampus.eu) helbidera, #erresilientzia\_euskampus erreferentziarekin, 2021eko abenduaren 15eko 17:00ak baino lehen.

3. Euskampus Fundazioak aurkeztutako proposamena egoki ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezko iritzitako bestelako argibide edota agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio erakunde partehartzaileari.

4. Deialdi honetan parte hartzeak haren oinarriak eta ebazpena onartzea dakar berekin, eta ebazpena ezin izango da aurkaratu.

## 7. artikulua. - Proposamenak onartzea eta zuzentzea.

1. Proposamena oso-osorik betetzen ez bada, edo prozedura honetan eskatutako dokumentazioarekin batera aurkezten ez bada, interesdunari eskatuko zaio (ahal dela, posta elektronikoz) **3 egun balioduneko** epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.
2. Proposamenean eskatutako memoria ez biltzea zuzendu ezin den akastzat joko da.

## 8. artikulua. - Aurkeztutako diziplinarteko ikerketa lanen eta hezkuntza berrikuntzako lanen ebaluazioa.

1. Lanak proposamenei dagozkien zientzia gaietan aditu den talde batek ebaluatuko ditu. Aditu horiek independenteak eta ikerketa ospe aitortukoak izango dira, bai eta ebaluazioan eskarmentudunak ere.
2. Ebaluazioa egiteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, dagozkien haztapenekin:

### 2.1 Ikerketa proiektuak:

- a) Proposamenaren kalitate zientifiko-teknikoa, garrantzia eta bideragarritasuna: % 20
- b) Ikertaldearen kalitatea, ibilbidea eta egokitasuna: % 20
- c) Eskualdean eta/edo identifikatutako *stakeholder*etan espero den aplikagarritasuna/eragina: % 20
- d) Hainbat erakundetako taldeen integrazioa eta diziplinartekotasun maila: % 20
- e) Aurrekontua lan planera egokitzea, baterako finantzaketaren eskema eta beste laguntza batzuen palanka efektuaren proiektzioa: % 10
- f) Ikerketa proiektuan eta beste hedapen eta/edo prestakuntza eta/edo hezkuntza berrikuntza jardura batzuetan ikasleak sartzea: % 10

### 2.2 Hezkuntza berriztatzeko proiektuak:

- a) Proposamen pedagogikoaren kalitate zientifiko-teknikoa, garrantzia eta bideragarritasuna: % 20
- b) Ikerketa-taldeen eta/edo ekipo pedagogikoen kalitatea, ibilbidea eta egokitasuna: % 20
- c) Hainbat erakundetako lantaldeen integrazioa eta diziplinartekotasun-maila: % 20
- d) Elkarlaneko, zeharkako eta iraunkortasun-hezkuntzako ikaskuntzari dagokionez espero den eragina: % 20
- e) Aurrekontua lan-planera egokitzea, baterako finantzaketaren eskema eta beste laguntza batzuen palanka-efektuaren proiektzioa: % 10

f) Stakeholder-ak lankidetzan eta zeharka sartzea: % 10

3. Ebaluazio prozesuaren emaitza gisa, honako hauek ezarriko dira:

- a) Ezestea proposatzen diren proposamenen zerrenda, proposamen horiek ezestea proposatzeko arrazoiekin batera.
- b) Ezarritako ebaluazio irizpideetara hobekien egokitzen diren lanen zerrenda lehenetsia, dagokion ebaluazio arrazoituarekin batera.
- c) Adituen taldeko erabakiak behin betikoak izango dira, eta aho batez edo gehiengo soilez lortu ahal izango dira. Adituen txostenak eta eztabaidak konfidentzialak izango dira.

### 9. artikulua. – Ebazpena: epeak eta prozedura.

1. Behin betiko ebazpena –funtsean ebaluazioan oinarrituko dena– ematea Euskampus Fundazioari dagokio.
2. Ebazpenean zehaztuko da proposamena onartu ote den edo, hala badagokio, ukatu ote den; onartu bada, proposamena gauzatzeko epeak eta guztira emandako zenbatekoa ere adieraziko dira ebazpenean, baita erakunde bakoitzari esleitutakoa ere.
3. Ebazpena emateko eta interesdunei jakinarazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

### Datu pertsonalak babestea

Indarrean dagoen araudiaren arabera, parte hartzeko eskaeran emandako datu pertsonalen tratamendua honako hauen arabera arautuko da:

- Arduraduna: Euskampus Fundazioa (IFZ: G95658688).
- Helburua: **"Euskampus Misionak 1.0"** 2021eko Programaren deialdiko eskatzaileen parte hartzea kudeatzea; baliabide elektronikoen bidez Euskampus Fundazioaren jardueren berri ematea (parte hartzeko web formularioaren bidez horretarako berriazko baimena eman badu soilik); Euskampusen webgunean eta sare sozialetan deialdi honetako onuradunen izen-abizenak argitaratzea.
- Tratamenduaren legezko oinarria: deialdi honetan parte hartzeko formularioa bidaltzean emandako berriazko baimena da Euskampusen partehartzaileen datu pertsonalak tratatzeko duen legezko oinarria.
- Datu pertsonalak gordetzea: Euskampusen deialdiko parte hartzea kudeatzeko behar den epean bakarrik gordeko ditu partehartzaileen datu pertsonalak; epe hori amaitu ondoren, ezabatu egingo dira. Euskampusi jakinarazpenak bidaltzeko baimena emanaz gero (adibidez, ekitaldi, jarduera eta deialdi propioei buruzko informazioa), datuak gorde egingo dira, baimena ezeztatu dela jasota geratzen den arte.
- Hartzaileak eta nazioarteko transferentziak: Euskampusen eskaera administratibo eta/edo judicial bati jarraituz beharrezkoa denean bakarrik jakinaraziko ditu **"Euskampus Misionak 1.0"** 2021eko Programan parte hartu dutenen datuak.

- Euskampusen ez die datuen nazioarteko transferentziarik egingo hirugarren herrialdeei (Euskampus Fundazioaren patronatuko kide den Bordeleko Unibertsitatearen eta hari lotutako erakundeen kasuan salbu).
- Interesdunen eskubideak: legediak zenbait eskubide aitortzen ditu partehartzaileen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez. Partehartzaileek beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta tratatzearen aurka egiteko eskubidea izango dute, baita eramangarritasuna eskatu eta emandako baimena kentzekoa ere. Horretarako, posta elektronikoa erabili ahal izango dute (info@euskampus.eu helbidera idatzi, gaian “Eskubideez baliatzea” jarriz eta mezuan beren izen-abizenak eta NANA sartuz) edo posta arrunta (Euskampus Fundazioa, Errektoregoa - Sarriena auzoa z/g - 48940 Leioa – Bizkaia – Spain). Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo ahal izango dute xede horretarako, [www.aepd.es](http://www.aepd.es) helbidearen bidez.